

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BILARKO UDALA

Behin betiko onarpena ematea euskararen arloko dirulaguntzak emateko berariazko ordenantza sortzeari

Bilarko udalbatzak behin betiko onetsi du euskararen arloko dirulaguntzak emateko berariazko ordenantza sortzeko espedientea, izan ere espedientea arauzko epean jendaurrean egon zen bitartean ez baitzen haren aurkako erreklamaziorik aurkeztu.

Euskararen arloko dirulaguntzak emateko berariazko ordenantzak honela dio hitzez hitz:

1. artikulua. Dirulaguntzaren xedea

Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzen xedea da ondoren zehaztuko diren jarduerak finantzatzea:

- Euskara ikasteko beka.
- Udalaz gaindiko proiektuak finantzatzea: Araba Euskaraz, Korrika eta abar.

2. artikulua. Onuradunak

Euskara ikasteko bekei dagokienez: Bilarko udalerrian erroldatuta egon eta 16 urte baino gehiago duten pertsonak. Pertsona bakoitzak egiten dituen ikastaro eta barnetegi adina beka eska ditzake (urria-otsaila, otsaila-ekaina, urria-ekaina, uda, uztaila edo iraila eta barnetegiak).

Bigarren atalari dagokionez: jarduera horiek langai dituzten elkarteak.

3. artikulua. Aurrekontu zuzkidura

Dirulaguntza hauetarako kopuru hauek ezarri dira:

- Bekak: 500,00 euro.
- Udalaz gaindiko proiektuak (euskararen aldeko dirulaguntzak): 400,00 euro.

4. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura

Dirulaguntzetarako deialdia Alkatetzak egingo du iragarki taulan argitaratuko duen iragarki bidez, salbu eta udalaz gaindiko proiektuetarako.

Eskaerak aurkeztea:

Eskaera alkateari aurkeztu beharko zaio, edo 39/2015 Legeak (urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena) 16.4 artikuluan adierazten dituen bideetako edozeinetatik. Eskaerari erantsita, deialdian adierazten diren agiriak aurkeztu behar dira.

Eskaera, eredu ofizialaren arabera egina, alkateari zuzendu behar zaio, Administrazio Publikoen Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16. artikuluan jasotako bideetako bat erabilita. Horretarako, hogeita hamar egun baliodun izango dira, deialdiaren iragarkia argitaratzen denetik aurrera. Eskaerarekin batera agiri hauek ere aurkeztuko dira:

Beketarako:

- Matrikula ordaindu izanaren frogagiria, bankuak emana.
- Euskaltegian matrikulatuta egotearen egiaztagiria, euskaltegiak emana. Barnetegietako ikastaroen kasuan, gastuak zehatu behar dira: irakaskuntza gastuak, eta mantenu-ostatu gastuak.

- Gutxienez eskolen ehuneko 75era joan izanaren egiaztatzea, euskaltegiak emanda. Bertaratzea ezin bada justifikatu, ezinbesteko arrazoiengatik izan beharko da eta justifikatuta egon beharko da, dagokion dokumentazioarekin.

- Euskaltegiak edo dagokion erakundeak emandako maila edo hizkuntza eskakizuna gainditzea.

- Kontzeptu hori dela-eta beste laguntzarik jaso ezean: zinpeko adierazpena.

Eskaerak ez baditu betetzen ordenantza honetan ezarritako betekizun guztiak, organo eskudunak errekerimendua bidaliko dio interesdunari hamar eguneko epe luzaezinean falta dena aurkeztu edo zuzendu beharkeoa zuzendu dezan, eta ohartaraziko dio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egintzat hartuko dela, aurrez dagokion ebazpena emanda 39/2015 Legeak 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Prozeduraren instrukzioa:

Instrukzio egilea arloko zinegotzi arduraduna izango da.

Hauek izango dira instrukzio jarduerak:

- Ebazpenerako beharrezko diren txosten guztiak eskatzea.

- Eskaerak ebaluatzea; balorazioa hurrengo oinarrian zehaztutako irizpideak, moduak eta lehentasunak kontuan hartuta egingo da.

Behin eskaerak ebaluatu ondoren, espedientea kide anitzeko organoari bidaliko zaio eta hark, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.1 artikulua betetzeko, haien gaineko txostenak egingo ditu. Organo hori dirulaguntzak emateko batzordea izango da, eta kide hauek izango ditu:

- Alderdi politikoen bozeramaileak.

Espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena aztertu ondoren, organo instruktoreak ebazpenerako behin-behineko proposamena aurkeztuko du, behar bezala arrazoituta. Horren berri interesdunei eman beharko zaie, deialdian ezartzen den moduan, eta hamar eguneko epea izango dute alegazioak aurkezteko.

Behin betiko ebazpen proposamenak honako hauek jaso behar ditu:

- Dirulaguntza ematea proposatutako eskatzaileen zerrenda.

- Dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoa.

- Ebaluazioaren eta aplikatutako irizpideen gaineko argibideak.

Instrukzio fasean onuradun proposatutako interesdunei jakinaraziko zaie behin betiko ebazpen proposamena, eta hamar eguneko epea emango zaie, onartzen duten ala ez esan dezaten.

Ebazpena

Behin betiko ebazpena onartu ostean, alkateak prozedura ebatziko du. Ebazpena arrazoitua izango da eta, betiere, ebazpenaren oinarriak frogatuta geratu behar dira.

Dirulaguntza jasoko duen eskatzailearen edo eskatzaileen izenak agertu beharko dira, baita gainontzeko eskaeren ezespina ere. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da. Deialdia argitaratzen den unetik hasiko da epea, deialdiak berak ondorioak beste data batera atzeratzen ez baditu.

Dirulaguntza emateari buruzko ebazpenak administrazio bidea bukatuko du.

Gehieneko epea igaro bada eta interesdunei ebazpenaren berri eman ez bazaie, esan nahiko du eskaera administrazio isiltasunagatik gaitzetsi egin dela.

5. artikulua. Onuradunen betebeharrak

Hauek dira onuradunen betebeharrak:

- Dirulaguntza ematea arrazoitzen duen helburua betetzea, proiektua egitea, jarduera gauzatzea edo haren jarrera izatea.
- Dirulaguntza ematen duen organoaren edo erakunde laguntzailearen aurrean justifikatzea dirulaguntza jaso ahal izateko ezinbesteko betekizunak eta baldintzak bete direla, jarduera egin dela eta helburua lortu dela.
- Dirulaguntza ematen duen organoak edo erakunde laguntzaileak egiten dituen egiaztapen jarduketa guztiak onartzea, bai eta kontrol organo eskudunek, estatukoek zein erkidegokoek, finantzak kontrolatzeko eta egiaztatzeke egiten dituztenak ere. Horrelakoetan, eskatzen zaien informazio guztia emango dute.
- Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideren bat lortu izanaren berri ematea dirulaguntza ematen duen organoari edo erakunde laguntzaileari.
- Ebazpen proposamena jakinarazi aurretik zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela frogatzea.
- Kontabilitate liburuak, egindako erregistroak eta merkataritzako gainerako agiriak behar bezala ikuskatuta edukitzea, merkataritzako legerian eta onuradunari dagokion arlokoan ezarritakoaren arabera.
- Jasotako funtsen aplikazioaren egiaztagiria gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jarduketan xede izan baitaitezke.
- Diruz lagundutako programa, jarduera, inbertsio edo ekintzetarako finantzaketa publikoa jaso izanaren berri ematea.
- Dirulaguntza itzuli behar izateko inguruabarretako bat gertatuz gero, jasotako kopurua itzultzea.

6. artikulua. Zenbatekoa

Dirulaguntza jasoko duen jardueraren, aurkeztutako eskaeren eta aurrekontu partidaren arabera finkatuko dira dirulaguntzen zenbatekoak:

- Bekak: bekaren zenbatekoa gehienez ere matrikula kostuaren ehuneko 80 izango da, eskatzen den beka kopuruaren eta aurrekontu partidaren arabera.

Baldin eta eskaeren kopurua eta eskatutako dirulaguntzen guztirako zenbatekoa direla-eta dirulaguntzen gehieneko ehunekoak txikitu behar badira aurrekontuan ezarritako partidara doitzeko, txikitzea proportzioan ezarriko da, eskaera guztiak kontuan hartuta.

7. artikulua. Justifikatzea eta kobratzea

Agiri hauek aurkeztu behar zaizkio udalari dirulaguntza jasotzeko:

Bekak:

- Eskaera, eredu ofizialaren arabera egina.
- Eskolen ehuneko 75era gutxienez bertaratu izanaren frogagiria, euskaltegiak emana, edota bertaratze ehuneko hori ezin bada frogatu (horretarako arrazoiak adierazi behar dira: ezinbestekoak eta agirien bidez frogatuko dira), ikastaroa edo hizkuntza eskakizuna gainditu izanaren egiaztagiria, euskaltegiak edo erakunde eskudunak emana.

Herriaz gaindiko proiektuak:

- Eskatera, eredu ofizialaren arabera egina.
- Jardueraren memoria.
- Laburpen ekonomikoa.

8. artikulua. Dirulaguntza itzultzea

Ordenantza Orokorreko 11. artikuluan ezarritako kasuetan itzuli egingo da jasotako dirulaguntza, bai eta berandutze korrituak ordaindu ere, hain zuzen ere, dirulaguntza ordaindu denetik dirua itzuli beharra ezarri arte sortutakoak, Dirulaguntzen Lege Orokorren 38.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

9. artikulua. Bermerako neurriak

Dirulaguntza ematen duen organoak nahi dituen administrazio kontrolak eta ikuskapenak egin ahal izango ditu aurkeztutako dokumentazioan adierazitako datuak benetakoak diren eta laguntza jasotzeko betekizunak betetzen diren ala ez egiaztatzeko.

Ikuskatze horretan laguntzeko betebeharra du onuradunak, eskatutako datuak eman beharko ditu eta, hala badagokio, jarduerak egiten diren bulegoetara sarbidea emango du.

10. artikulua. Ebazpena aldatzea

Dirulaguntza emandakoan, organo eskudunak hura aldatzea erabaki ahal izango du, interesdunak eskatuta eta Dirulaguntzak Emateko Batzordeak txostena egin ondoren, ondokoak betez gero:

- Aldaketa arrazoitzen duten inguruabarrak onuradunaren nahiaren menpekoak ez badira.
- Dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak, elementuak edo inguruabarrak aldatu badira, eta hortaz, emandako dirulaguntza berrikusteko beharra badago.

11. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Laguntza horiekin batera beste laguntza edo dirulaguntza batzuk ere eskura daitezke.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ezin da inolaz ere izan jardueraren kostua baino handiagoa, bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera.

Onuradunak xede bererako beste dirulaguntza, laguntza publiko, diru sarrera edo baliabideren bat lortzen badu, dirulaguntzak ematen dituen organoari jakinarazi beharko dio.

Beste laguntzarik jaso ez bada, hori dioen zinpeko aitortpena aurkeztu behar da.

12. artikulua. Arau haustek eta zehapenak

Arau haustek eta zehapenak dirulaguntzak ematea arautzen duen Ordenantza Orokorreko 13.etik 18.era bitarteko artikuluetan ezarritakoak izango dira.

13. artikulua. Indarrean jartzea

Ordenantza hau ALHAOn osorik argitaratu eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan ezarritako epea igarotakoan sartuko da indarrean.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da. Ediktu honen kopia Bilarko udaletxeko iragarki taulan egongo da ikusgai, eragin berberetarako.

Bilar, 2019ko abenduaren 30a

Alkatea

ENRIQUE PÉREZ MAZO